

2012ko Ekaina. Santiago bidea egitea erabaki dugu egunerokoarekin hausteko. Iazkoari jarraiki, Lizarran hasi eta Burgosen bukatzeko asmoarekin hasi dena, etapa bat laburtu eta San Juan de Ortegaraino egin dugu. Plangintzaren malgutasunaren lekuko aldaketa hau. Aurreko egonaldiak 5 egunetakoak egin ditugu denak eta egun pare bat luzatzearen proposamenari erantzunez, aurten 7 egunetako egonaldia egin dugu. Bi egunegonaldia luzatzeak hausturan sakontzea ahalbidetu digu, bizipena trinkotzea.

Lizarran hasi ginen, berandu azkenerako, eta kredentzialak hartuta Los Arcosera bidean jarri. Ez dezagun ahaztu. Azken aldia izan dadila goiz erdiz, eguzkitan eta 30 gradurekin abiatzen garena. Lehen etapa honetan ez genuen ongi pasa, bero zegoen. Joni galdetu bestela! Luze joan arren, oasia bailitzan Los Arcos azaldu zitzaigun parez pare, egundoko lasaitua eta ur tragoa hartu genuelarik. Gazteak, nekez gain lehen eguneko elkar ezagutza jolasetan murgildurik genituen eta gaztetasunaren indarrak lagunduta kexarik gabe eta gogo betez burutu zuten txangoa. Los Arcosen, Casa de la Abuela aterpetxean hartu genuen ostatu. Duxa on bat, janaria erosi eta afaldu eta gero ohera! Gehiagorako denborarik ez zegoen! Hurrengo eguna ezberdina izango zenaren ziurtasunarekin loak hartu gintuen, “no open the door” oihukatzen zuen gazte autistaren ezinegona gure ametsetan barneratu genuelarik.

“Los Arcos jaiki da, goizeko 6:30etan. Gosaria prestatu digute etxeko nagusiek. Hau beste gauza bat da!” zioen egunerokoak. Lainoekin jaiki ginen eta tenperatura epelarekin. Bikain! Ondo gosalduta eta gero, 7:15etako martxan ginen. Taldearen dinamika bide onetik zihoanaren seinale. Viana non zaude? Ordu-batak inguruan iritsi ginen Vianara, inongo eragozpenik gabe eta Andres Muñoz aterpetxean ostatu hartuta. Eta bazkaria? Igandea izanik, irekita topatu genuen okindegi batean erosketa egin eta tortilla bokadilloa bazkaldu genuen. Arazoa afaria zen, zer erosirik ez baikenuen. Eta gazteak zein ez hain gazteak elikatu behar dira!! Bazkalostean ohean ginen denak, bi egun bakarrik pasatu izanagatik ere nekatuak baikeunden. Matxuren informea itxura hartzen hasia zen: babak, faszitisak eta tendinitisak. Aterpetxean afaririk egiteko ez genuenez, “menu peregrino” bat afaltzera joan ginen, ongi afaldu ere! Giroa, taldea, lagunak, hitz guzti hauei adjektibo positiboak besterik ez zegozkien. Afalostean, 22:00tako ohean ginen, lo hartzeko prest, hiru mailatako ohatzetan! Ji,ji eta ja, ja pare bat eta... zzzzzzzzzzz.

Viana, Antso Azkarraren eskutik jaioa eta Gaztelari begiratzen zion Nafar Erresumako gotorlekua. Viana atzean utzita, mahastietan barna Logroñoruntz abiatu ginen Navarrete helmuga genuela. Etorkizun hurbilak Logroñoruntz eramaten gintuen, gosaltzera! Iragan hurbilak, emakume korearrari iphone bat lapurtu izana ekartzen zigun burura. Egoera anitzak izan daitezkeelako, denak kudeatzeko prest egon behar gara! Trago txarra iragandakoa. Ekintza berari soluzioa eman genion. Gaztearen jarrerari soluzioa ematea zailagoa ikusten dut. Arian, Logroñon ginen eta bertan gosalduta genuen. Nahigabe sortutako planifikazioa, gustatu zitzaigun. Orduetik aurrerako egunetan aterpetxean gosalduta baino, abian jarri eta ordubete, bi ordutara gosaltzea erabakita zegoen. Ibiltzearen errutina hausten du eta txangoaren luzera laburtu. Ba hori, Logroñon gosalduta, Mercadonon erosketak egin eta aurrera! Navarrete, non zaude? Goizeko lainoek, eguerdiko beroari eman zioten bide. Azkenean ordu bata inguruan iritsi ginen Navarrete, osborne zezen potrodunak ongi zaindutako herrixka. Aterpetxea ireki arte itxoin behar izan genuen eta luze joan zitzaigun, are gehiago bazkaria egiteke genuela

kontuan hartuta. Guretzako bakarrik izango zen gela batean ostatu hartuta, spaghettiak egosi genituen bertan topatu genuen lapikorik handiengan. Gosez geratuko ez ginela argi zegoen. Tomatea eta xingarrarekin nahastuta, lepo. Eguneroko errutina bilakatzen ari zen loalditxoari bere tartetxoa eskaini genion, nola ez!

Eta loalditxoaren lasaitasunean sortzen diren burutazioetan “Asociación de Amigos del Camino de Santiago”ko lagunak hain lagun ez genituela sumatzen hasiak ginen Jon eta biok. Ospitaleroak laguntzeko dauden arren, aurreiritziak gaintitu egiten zuen Navarretekoa eta faltsukeriaz jokatu zuen. Gazte talde batekin joateak dituen eragozpenak!

Afaria lehenengoz gazteen eskutik joan zen eksklusiboki eta horrela izan zen bukaera arte. Lorpen txikia iruditu arren, guretzako beraiek ardura hori hartzea lorpen handia da eta are gehiago afariak goxoak ateratzen badira! Azken honek beraien berezko gaitasunei erantzuten dio baina hauek bideratu behar dira ezta? Eta tira, oheratzeko ordua iritsita, gau isila muxu hotsek hausten zutela, batzuek besteak baino luzeago lo egin genuen.

Asteartea, Navarretetik abiatu eta Najera zain. Ventosan gosaldu genuen. Errutinak agintzen zuen bezala, 2 ordu inguru ibili eta gero. Gosari ederra, gure “principe” gailetak kafesne eta cola-caio-etan bustiaz. Aldapatxoren bat tarteko, behin altuera hartuta Najera ikus genezakeen urruntasunean, hurbil egotera noiz iritsiko irrikan... Jonen faszitisak eta gazteren batzuen babak bereak eta bi egiten hasiak ziren. Najerara iritsi eta erromes (peregrino) izatetik, najerino izatera pasa ginen. Garaiz iritsita, herriaren irudizko harrera on honek talka egin zuen aterpetzeko ospitalero batek egin zigun harrerarekin, ia iraintzat hartu daitezkeen gauzak entzun behar izan genituelarik. Joatekoak ginenaren jakinean omen zeuden eta ez bereziki osperik onenarekin. Ai Navarrete, Navarrete! Amaigabeko irribarre faltsuez aurpegia betetzen zuen ospitaleroa zuritu genuen. Azkenerako, hasiera batean nahiz garaiz iritsi aterpetxean geratu ahal izango ginenik ziurtatu ez baziguten ere, hamaika aitzakia txatxu eta txoro erabiliz, beste erromes batzuen babesarekin bertan geratzeko aukera izan genuen. Gazte talde batekin Santiago bidea egiteak sortzen dituen arazoak!

Erosketak egin eta bazkaritarako, bi paella eder egin genituen, txerri saiheski, piper gorri, oilasko hegal eta guzti. Honek hasierako urduritasunak lasaitzea ekarri zuen. Nola ez. Aterpetzeko seinalatuak izatetik, bertakoen erreferentzi eta inbidia izatera. Bapo. Siestarako alfonbra gorria prest...

Gazteek, arratsalde pasa egiteko aukera izan zuten, ibaian bainua hartuta afaria prestatzeko hitzordua jarrita. Errutinaren balioa... Afaria euren esku. Afaria goxoa. Sukalde txiki batean gatzetxoak ikustea lanean bati baino gehiagori zer esana eman zion. Erromes asko gure proiektuaz interesatzen hasiak ziren, denek euren onespina eta animua ematen zigutelarik. Hori polita da. Zure lanari balioa ematen dio. Aupa Jon!!

Gela bakar bateko barrakoa zen, ohatzeez betea, 100 bat plaza inguru... Maitaneri eskerrak eman nizkion nire baitan, “- tapoiak ez ahaztu! -” esaten zidala gogoratu nuenean. Laugarren gau honetan, zintzo-zintzo goiz oheratuta, ederki egin genuen lo, edo hori esango nuke nik behintzat. Erromesaren dinamikan sartuak ginen bete betean!!

Asteazkena jaiki da. Eguraldiarekin zortea izaten jarraitzen dugu. Najera atzean utzita eta gosaria Azofran hartuta, ibilaldi honetan batzuen eta besteen sufrimenduak goia jo zuen. Bidean krisiak desolaturiko urbanizazio fantasmak atzean utzi genituen, eta Santo Domingo de la Calzadara garaiz iritsi ginen baina esan bezala, ongi kostata baten-baten kasuan. Ostatu hartzeko, talde osoa bertan egotea beharrezkoa zen. Aterpetxea oso ongi zegoen. 10 plazako gela batean egokitu gintuzten. Bi ohe libre beraz, ea nor etorriko

zain. Eguneko erosketak egin eta ogitarteko batzuk prestatu genituen bazkaritarako. Argazkitan ikusi daitekeen ogitarteko handi hori hain zuzen ere. Edozer gauza jango genuke ibilaldi luze baten ostean, baina ogitarteko handi eta on batek ez du preziorik. Ederra! Horrelakoetan konturatzen zara, zein garrantzia duen holako ibilaldietan, egunetako ibilaldietan, janariak, ongi jateak. Auskalo gazte hauek zein ohitura dituzten euren egunerokoan, baina han otorduetan ez zuen inork huts egiten, goserik ez baitzen falta.

Arratsaldea matxurak konpontzeko, herria bisitatzeko, eta gazteek euren artean, neskak alde batetik eta mutilak bestetik ibiltzeko eta haserretzeko baliatu zuten. Nerabezaroko tira-bira tipikoa gaualdera Santo Domingoko Besarkadarekin bukatu zen horietakoa.

Jon eta gazteetako bat masajistarenetik pasa ziren, euren arazo fisikoak sendatzeko asmoarekin. Tipo xelebrea hura, inondik ere Santiago bideak sortzen dituen arazo fisikoez asko zekiena. Jonek behintzat eskerrak eman beharko lizkioke, hurrengo bi egunetako sufrikarioa eramangarriagoa egin baitzion.

Betiko errutinari jarraiki, goiz afaldu genuen gazteen eskutik. Bitartean, bi gizon adineko gure 10 pertsonako gela osatzera iritsi ziren. Arratsaldeko agur adeitsuak, ez ziratekeen hain adeitsuak zurrungalari profesionalak zirela jakin izan bagenu. Nik nire tapoien isiltasunean lo sakon egin nuen. Ez ordea beste batzuek, Jon tarteko. Alde bateko zurrungak, eta besteko txutxumutxuak bere pazientzia agortu eta goizeko ordu txikitari Santo Domingoko Orrua bota zuen. Hura izan zen haiek lokartzeko (isiltzeko) ordua.

Santo Domingo de la Calzadatik Beloradora. Beti bezala goiz jaiki, fruta eta jogurten bat jan eta bideari ekin genion. Grañonen gosaldia eta aurreko etapan ikusten hasiak ginen bezala, mahastiei gariak hartu zien lekukoa, haizeak garitza nola mugitzen zuen gure entretenigarri bilakatuz. Azken aurreko etapa, gazte baten babek bereziki markaturikoa, hori zen hori ibilera herrena. Ibilaldien erritmoa erabat hartua genuen eta taldeak horretan ez zuen inongo kezarik. Beti bezala, aterpetxean tokia hartzearen beharrak presionatzen gintuen zertxobait, batez ere taldekide baten oinazeek taldearen erritmoa baldintzatzen zuelako. Baina oinazeekin ere, bazkalordurako aterpetxean ginen, tokia hartuta eta bazkaltzeko prest! Hori bai, iristerako denda denak itxita topatu genituen eta gure bazkaria eta beraz umorea kolokan izan genituen tarte batez. Eskerrak, aterpetxeak jatetxe zerbitzua bazuen! Ogitarteko eder batzuk eskatu eta denak kontent, animuak tripa beteta lasaituaz. Aterpetxearekin kontent ginen, pizina eta guzti bazuen! Bazkalostean, siestatxo. Gero herrian barna bueltatxo bat eta erosketak. Afaritarako pasta tomatearekin, haragiarekin, gaztarekin... Gazte hauek zein ongi sukaldatzen duten! Guk soberan utzitakoa, bertako ospitalero bati eskaini genion eta hasieran mesfidati onartu bazuen ere, gazteek egindakoa zelako (pentsatzen dut), guk afaria bukatuta ere sukaldean ikusi nuen gure spaghettiak azken agurra ematen, ogi bustitzea eta guzti. Goxoa egongo zen ezta?

Afalostean, gazteek pizinan bainatzeko aukerari uko egin ezinik, han ibili ziren euren gorputz "lirainen" erakusketa zirudien dantza - borroka moduko batean. Oheratzeko ordua iritsita, hor ibili ginen haien atzetik pizinatik atera zitezten. Azken eguna antza festarako aitzakia izaten den arren, logelaren disposizioak (sakabanatuta geunden) eta nekeak eguneroko errutinarekin jarraitzea ahalbidetu zuten. Eskerrak. Hobe denontzako. Lo...

Azken eguna! Ostirala! San Juan de Ortegari Iker daukagu zai, eta bere pala partida ere bai! Azken etapa izateko, aurrekoekin konparatuz aldapatsua eta herri guneetatik urrundua. Azken txanpa luzexka egin zitzaigun. Hori baino lehen ez zaigu ahaztuko

mendian gora gindoazela atsedean leku batean topatutako agurearekin mantendutako elkarrizketa, hura esperientziaren eta jakituriaren ahotsa hartuta eta gazteak munduaren euren ikuspegia emanez. Atsedean eta askari entretenitua. Ba hori, azken txanpa luzea gure azken hizketaldiekin, ibilbidean zehar ematen direnak, luze batean batekin, hurrengoan bestearekin... Azkena, oinak babaz josita zituena. Baso amaigabe batetik, bapatean San Juan de Ortegako eliza begitandu eta gure bidearen amaiera ikusi genuen. Denak garaiz hitzartutako orduan iritsi ginen. Gu iristerako han baitzegoen Iker, zibilizaziotik eta eguneroko mundutik zetorren telefonoz bestaldeko ahots hori. Besarkadak, agurrak eta janari pila bat. Amaierako argazkia, bazkarirako tarte txiki baina oparo bat eta furgonetara. Furgonetak guk zazpi egunetan ibilitako kilometro guztiak ordu batean nola jan zituen ikustea sentsazio bitxia izan zen. Baina bi ordu furgonetan ez diote zazpi egunetako bizipen sakonari itzalik egiten. Medioaren aberastasun erlatiboa.

Etxean gaude. Plazer bat izan da.

Imanol Icardo
Hezitzailea